

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LASARTE-ORIAKO UDALA

*Iragarkia*

2021eko apirilaren 27ko Alkatetzako Dekretuaren bidez, ebatzi zen lehiaketa-sistemaren bidez Udaltzain lan-poltsa bat sortzeko deialdiaren oinarri arautzaileak onartzea, jarraian argitara ematen direnak, eta eskabideak aurkezteko epea irekitzea.

Lasarte-Oria, 2021eko apirilaren 27a.—Agustin Valdivia Calvo, (2903)

*Udaltzaingoko agenteen lan-poltsa lehiaketako sistemaren bidez sortzeko deialdiaren oinarri arautzaileak.*

*Lehenengoa. Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen xedea da Lasarte-Oriako Udalaren Udaltzaingoko agenteen lan-poltsa bat sortzea, lehiaketako sistemaren bidez.

Lehiaketa gairatzen duten izangaiek lan-poltsa bat osatuko dute, eta horrek eskubidea emango die, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren hurrenkeran, Udaltzaingoa sortzen diren langile-beharrak betetzeko dei diezaieten.

Aipatutako zerrendan sartutako izangairen batek arrazoi justifikaturik gabe uko egiten badio kontratua izateari horretarako deitzen zaionean, bere eskubide guztiak galdu ahalko ditu, eta eskubide horietatik ezabatu ahalko da.

*Bigarrena. Izangaien baldintzak.*

Onartuak izateko eta, hala badagokie, lehiaketa honetan parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 1) Aurretik eskabidea egitea ezarritako ereduaren arabera.
- 2) Espainiako nazionalitatea edukitzea.
- 3) 18 urte beteta edukitzea eta 38 urte beteta ez edukitzea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Nolanahi ere, muga hori konpentsatu ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetan emandako zerbitzuekin.
- 4) Gizonek gutxienez 1,65 metroko garaiera edukitzea eta emakumeak 1,60 m-koa.
- 5) Batxilergoko titulua, 2. mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokidea edukitzea.
- 6) Euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidearen jabe izatea.
- 7) Ibilgailuetarako B gidabaimenaren titularra izatea.

8) Ez egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketako eta Prestakuntzako Araudia onesten duen dekretua bigarren aldiz aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 dekretuan agertzen den bazterte medikoen koadroan.

9) Dolozko delituren bat egiteagatik kondenatua ez izatea, Administrazio Publikoko zerbitzutik berezia ez izatea, eta funtzio publikoan aritzeko desgaitua ere ez izatea.

AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA

*Anuncio*

Mediante Decreto de Alcaldía de 27 de abril de 2021, se resolvió aprobar las Bases reguladoras de la convocatoria para la creación de una bolsa de trabajo de agentes de la policía municipal, mediante el sistema de Concurso, que se publican a continuación, y disponer la apertura del plazo de presentación de instancias.

Lasarte-Oria, a 27 de abril de 2021.—El alcalde, Agustin Valdivia Calvo. (2903)

*Bases reguladoras de la convocatoria para la creación de una bolsa de trabajo de agentes de la policía municipal, mediante el sistema de concurso.*

*Primera. Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de la presente convocatoria la creación de una bolsa de trabajo de Agentes de la Policía Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, mediante el sistema de Concurso.

Las personas aspirantes que superen el concurso formarán parte de una bolsa de trabajo que les dará derecho, en el orden de puntuación obtenido en el proceso selectivo, a ser llamadas para cubrir las necesidades de personal que surjan en la Policía Municipal.

Si alguna persona aspirante incluida en la citada lista renuncia sin causa justificada a ser contratada en el momento de ser llamada para ello, podrá decaer en todos sus derechos y ser eliminado/a de la misma.

*Segunda. Requisitos de las personas aspirantes.*

Para ser admitido y, en su caso, tomar parte en el presente Concurso, serán requisitos necesarios:

- 1) Formular la solicitud previa de acuerdo con el modelo establecido.
- 2) Tener nacionalidad española.
- 3) Tener cumplidos 18 años y no tener cumplidos 38 en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes. En todo caso, este límite podrá ser compensado con los servicios prestados en los Cuerpos de Policía del País Vasco.
- 4) Tener una estatura mínima de 1,65 m los hombres y 1,60 m las mujeres.
- 5) Estar en posesión del título de bachiller, Formación Profesional de 2.º grado o equivalente.
- 6) Estar en posesión del Perfil Lingüístico 2 o equivalente.
- 7) Ser titular del permiso de conducción de clase B, para turismo.

8) No estar incurso/a en el cuadro de exclusiones médicas que figura en el Decreto 36/2004, de 17 de febrero, de segunda modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco.

9) No haber sido condenado/a por delito doloso, ni separado/a del servicio de la Administración Pública, ni hallarse inhabilitado/a para el ejercicio de funciones públicas.

Hala ere, errehabilitazioaren onura aplikatuko da, arau penalen eta administratiboen arabera, baldin eta izangaiak dagokion agiri ofizialaren bidez hala egiaztatzen bada.

10) Arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik Euskal Herriko polizia-kidegoren batean sartzeko hautaketa-prozesutik baztertutakoa ez izatea, baldin eta baztertea aitortu zen egunetik zigorraren iraungipen-epaia adinako aldia igaro ez bada.

11) Bere lana egiteko oinarritzko prestakuntza izatea. Ondorio horietarako, oinarritzko prestakuntza jaso dela ulertuko da baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

a) Poliziako eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandako Udaltzaingoarekin Oinarritzko Eskalako agenteentzako eta bitarteko agenteentzako prestakuntza-ikastaroa gainditu izatea.

b) Lanpostuaren eginkizunekin zuzenean lotutako ikastaro bat egina izatea, gutxienez 40 ordukoa.

c) Udaltzaingoko agente gisa gutxienez 6 hilabetez lan egina izatea.

#### *Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea.*

Hautaketako prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuaren egingo dira. Eredu hori oinarri hauei erantsirik doa, I. eranskin gisa. Lasarte-Oriako Udaletxeko Erregistro Orokorrean egongo da eskuragai, 9:00etatik 14:00etara bitartean, asteleheneetik ostiralera, eta halaber eskuratu ahalko da Udalaren webgunean ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)).

Onartua izateko eskabideak Lasarte-Oriako Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko zaizkio, eta hurrengo baldintza hauek bete behar dituzte errefusatua ez izateko:

a) Hautagaiek adierazi behar dute deialdiko 2. Oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzen hartuta.

b) Horrez gain, eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

– DNIaren fotokopia.

– Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.

– Eskatutako gidabaimenaren fotokopia.

– 2. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, edo, bestela, euskarako ziurtagiri edo titulu baliokideren baten fotokopia.

– Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, merezimenduen fasean baloratuak izateko. Dokumentu horiek, nahitaez, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izan behar dira. Ez dira balorakizun izango eskabidean ailegatu diren merezimenduak edota eskabidearekin batera aurkeztu behar diren dokumentuekin akreditatzen ez direnak. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuta baloratuko dira.

– Poliziako eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandako Udaltzaingoko oinarritzko eskalako agenteen edo bitarteko agenteen prestakuntza-ikastaroa gainditu izanaren ziurtagiri originala edo fotokopia konpultsatua, edo lanpostuaren eginkizunekin lotura zuzena duen ikastaro bat egina izatearen ziurtagiria, edo Udaltzaingoko agente gisa zerbitzuak eman diren denboraren ziurtagiria.

c) Aurkezteko epea: eskabideak 10 egun naturaleko epean aurkeztu ahalko dira, deialdia eta oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Ikusten diren egitatezko akatsak edozein unetan zuzendu ahalko dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta. Ez dira egitatezko akatsak hartuko merezimenduak eskabidean ez alegatzea edo

Será aplicable, no obstante, el beneficio de la rehabilitación, de acuerdo con las normas penales y administrativas, siempre que aquella se acredite mediante el correspondiente documento oficial por parte del/de la aspirante.

10) No haber sido excluido/a de un proceso selectivo para el ingreso en algún cuerpo de Policía del País Vasco por la comisión de una falta grave o muy grave, salvo que hubiera transcurrido un periodo de tiempo equivalente a su plazo de prescripción contado desde la fecha de declaración de la exclusión.

11) Poseer una formación básica para el desempeño de su labor. A estos efectos se considerará que se posee tal formación básica, si se cumple con alguna de estas condiciones:

a) Haber superado el curso de formación para agentes o agentes interinos e interinas de la Escala Básica de la Policía Local impartido por la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

b) Estar en posesión de un curso relacionado directamente con las funciones del puesto de trabajo, mínimo de 40 horas.

c) Haber prestado servicios como Agente de la Policía Local por un periodo mínimo de 6 meses.

#### *Tercera. Presentación de las instancias.*

Las instancias solicitando tomar parte en el proceso selectivo se ajustarán al modelo oficial y normalizado que se adjunta a las presentes Bases como anexo I. Será facilitado en el Registro General del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, en horario de 9.00 a 14.00 horas de lunes a viernes, y podrá obtenerse, asimismo, en la página web municipal ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)).

Las instancias de admisión se dirigirán al Sr. Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, debiendo reunir los siguientes requisitos para no ser rechazadas:

a) Los aspirantes deberán hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la Base 2.ª de la convocatoria, referido siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.

b) Además, junto con la instancia, deberá presentarse la siguiente documentación:

– Fotocopia del DNI.

– Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria.

– Fotocopia del permiso de conducción exigido.

– Fotocopia, en su caso, del documento acreditativo del cumplimiento del Perfil Lingüístico 2 o de alguno de los certificados o títulos de Euskera equivalentes.

– Documentos que acrediten los méritos alegados en la instancia, al objeto de su valoración en la Fase de Concurso. Estos documentos deberán ser, necesariamente, originales o fotocopias compulsadas. No serán objeto de valoración aquellos méritos que no se aleguen en la instancia y/o no se acrediten con la documentación a presentar junto con la misma. Se valorarán con referencia a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

– Certificado de haber superado el curso de formación para agentes o agentes interinos/as de la Escala Básica de la Policía Local impartido por la Academia Vasca de Policía y Emergencias o certificado de estar en posesión de un curso relacionado directamente con las funciones del puesto de trabajo, o certificado del tiempo durante el que se haya prestado servicios como Agente de la Policía Local.

c) Plazo de presentación: Las solicitudes podrán presentarse en el plazo de 10 días naturales contados a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria y sus bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Los errores de hecho que pudieran advertirse podrán ser subsanados en cualquier momento, de oficio o a petición del interesado. No se considerarán errores de hecho la no alegación en la ins-

merezimendu horiek egiazatzeko agiriak eskabidean ez sartzea. Interesatuak horri buruzko hutsegiteren bat ikusten badu, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte zuzendu ahalko du; behin epe hori amaituta, ez da onartuko zuzenketa.

**Laugarrena.** *Datu pertsonalen tratamenduaren baimentze automatikoa.*

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeak berekin dakar eskaeran jasotako datu pertsonalak tratatzeko onespina, dagozkion iragarkiak jartzeko eta lan-poltsa kudeatzeko. Datuak ikusteko, aldatzeko, zuzentzeko edo ezabatzeak eskubideaz baliatu nahi izanez gero, deialdia egin duen organora jo beharko dute.

**Bosgarrena.** *Komunikazioak, notifikazioak eta informazioa.*

Prozedura honetatik eratorritako komunikazio eta notifikazioak udalaren webgunean argitaratuz egingo dira.

**Seigarrena.** *Izangaien onarpena.*

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Korporazioko alkate-presidenteak hautagai onartuen eta baztertuen lista behin-behinekoa onetsiko du, zeinetan adieraziko baititu, kasua hala bada, baztertzearen kausak. Lista hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta Lasarte-Oriako Udalaren webguneko ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)) iragarpen-taulan jarriko da ikusgai.

Prozedura Administratibo Komunaren 39/2015 Lege urriaren 1ekoak 68.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatutako lista behin-behineko horretan baztertutzat ageri diren hautagaiei hamar (10) egun naturaleko epea emango zaie, lista hori aipatutako ALDIZKARI OFIZIALEAN publikatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita, baztertua gertatzea kausatu duten errakuntzak edo omisioak zuzentzeko.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko lista automatikoki behin betikoa bihurtuko da baldin eta inork erreklamaziorik aurkezten ez badu. Halakorik izanez gero, orde, beste ebazpen batean onartuko edo errefusatuko dira, eta haren bidez onetsiko da hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, zeina gorago adierazitako moduan argitaratuko baita.

**Zazpigarrena.** *Epaimahai kalifikatzailea.*

Epaimahai Kalifikatzailea kide titularrek eta ordezkoez osatua egongo da, eta haien izendapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta Lasarte-Oriako Udalaren webguneko ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)) iragarpen-taulan jarriko da ikusgai, honela osatua geratuko delarik:

- Lehendakari bat.
- Bi bokal, meretzimenduak baloratu behar dituztenak.
- Idazkari bat.

Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ezingo dute esku hartu, eta alkate-presidenteari kasuaren berri eman beharko diote, baldin eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren 40/2015 Lege urriaren 1ekoak 23. artikuluan jasotako zirkunstantzietakoren bat gertatzen bada haiengan. Era berean, hautagaiek errefusatu ahalko dituzte, Lege bereko 24. artikuluan arabera.

Epaimahai Kalifikatzailearen osieran profesionaltasunaren eta inpartzialtasunaren printzipioak aplikatuko dira. Hala ere, eta horrek espezialitatearen printzipioaren gainean eraginik ez badu, Epaimahai Kalifikatzailearen osakerak orekatua izan behar du gaitasun, trebetasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen artean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Lege otsailaren 18koak 20.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Epaimahai Kalifikatzailearen jarduna denbora guztian bat etorriko da Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren 40/2015 Lege urriaren 1ekoan organo kolegiatuei buruz jasotako xedapeneekin.

tancia de los méritos o la no incorporación a aquella de los documentos acreditativos de los mismos. Si por parte del interesado se advirtiera alguna omisión sobre este particular, podrá subsanarla hasta la finalización del plazo para la presentación de instancias; una vez finalizado dicho plazo, no se admitirá la subsanación.

**Cuarta.** *Autorización automática para tratamiento de datos personales.*

La participación en este proceso selectivo supone la aceptación del tratamiento de los datos de carácter personal recogidos en la instancia para las publicaciones y gestión de la bolsa de trabajo. Para ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición pueden dirigirse al órgano convocante.

**Quinta.** *Comunicaciones, notificaciones e información.*

Las comunicaciones y notificaciones derivadas de este procedimiento se efectuarán por medio de su publicación en la página web municipal.

**Sexta.** *Admisión Aspirantes.*

Finalizado el período de presentación de instancias, el Sr. Alcalde-Presidente de la Corporación aprobará la relación provisional de aspirantes admitidos y excluidos, con indicación, en su caso, de las causas de exclusión, que será publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y expuesta en el Tablón de Anuncios de la página web del Ayuntamiento de Lasarte-Oria ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)).

De conformidad con el artículo 68.1. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común, a los aspirantes que figuren como excluidos en la citada relación provisional se les concederá un plazo de diez (10) días naturales, contados a partir del día siguiente al de la publicación de aquella en el referido BOLETÍN OFICIAL, para subsanar los errores u omisiones que hubieran motivado la exclusión.

La relación provisional de admitidos y excluidos se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se presentaron reclamaciones. Si las hubiere, serán estimadas o desestimadas mediante una nueva resolución, por la que se aprobará la relación definitiva de aspirantes admitidos y excluidos, que se hará pública en la forma arriba indicada.

**Séptima.** *Tribunal calificador.*

El Tribunal Calificador estará compuesto por miembros titulares y suplentes, cuya designación será publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y expuesta en el Tablón de Anuncios de la página web del Ayuntamiento de Lasarte-Oria ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)), quedando constituido de la siguiente forma:

- Un/a presidente/a.
- Dos vocales que han de valorar los méritos.
- Un/a secretario/a.

Los miembros del Tribunal Calificador deberán abstenerse de intervenir, notificándolo en tal caso al Sr. Alcalde-Presidente, cuando concurra en ellos alguna de las circunstancias previstas en el artículo 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Asimismo, podrán ser objeto de recusación por parte de los aspirantes, conforme al artículo 24 de la misma Ley.

La composición del Tribunal Calificador se ajustará a los principios de imparcialidad y de profesionalidad de sus miembros. No obstante, y si ello no afecta al principio de especialidad, aquella ha de ser equilibrada entre mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuadas, a tenor del artículo 20.6 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La actuación del Tribunal Calificador se ajustará, en todo momento, a las disposiciones que sobre los órganos colegiados se contienen en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Epaimahai Kalifikatzailea ezingo da ez eratu, ez aritu, baldin eta kide titularren edo ordezkoren erdiak bertan bildu ez badira, eta, edozein kasutan ere, presente egon behar dute presidentek eta idazkariak. Epaimahai Kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, azken horrek ez baitu botoirik izango. Erabakiak hartzeko, bildutako botoen gehiengoa beharko da; berdinketa gertatuz gero, berriz, presidente diharduenaren kalitatezko botoak erabakiko du.

#### Zortzigarrena. Lehiaketako fasea.

Epaimahai Kalifikatzaileak ondoren aipatzen diren merezimenduak baloratuko ditu, betiere eskabidean alegatu eta behar bezala egiaztatu badira, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzen hartuta.

Epaimahaiak merezimenduak ebaluatuko ditu eta lehiaketaren behin-behineko kalifikazioak argitaratuko ditu. Horiekin batera, dokumentazioa zuzendu behar duten eskatzaileen zerrenda argitaratuko da, akreditazioa zuzendu behar zaion merezimendua espresuki aipatuz.

Aipatutako argitalpenaren hurrengo egunetik aurrera, hautagaiak 5 egun naturaleko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak egiteko eta egin beharreko zuzenketa egiteko.

Hurrengo hauen arabera baloratuko dira merezimenduak:

\* Egindako zerbitzuak: Udaltzaingo agente gisa lan egindako hilabete bakoitzeko 0,25 puntu (10 puntu gehienez).

Merezimenduak baloratzeko garaian hilabeteak hartuko dira kontuan; hilabeteak beherako lan-esperientziak ez dira kontuan hartuko. Hilabeteak hartuko da 30 egun naturalaren batura.

Emandako zerbitzuak egiaztatzeke, zerbitzu horiek eman diren administrazioaren ziurtagiriak aurkeztuko dira. Ziurtagiri horietan zehaztu beharko da eginkizunak zer plazatan bete diren eta zerbitzuek zenbat iraun duten.

Lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako lanaldi lanaldi osoan lan egindako denboratzen hartuko dira.

\* Titulazio akademiko ofizialak: Gehienez 2 puntu emango dira.

Zuzenbideko, Kriminologiako, Herritarren Segurutasuneko eta Babes Zibileko titulu ofizialak, bai eta Epaimahai kalifikatzaileak titulu horiekin eta deialdiko agente oinarritzkoaren plazaren tituluekin lotura dutela irizitako beste batzuk ere, honela puntuatuko dira:

– Lizentziaturaren mailako titulua, unibertsitateko gradua edo baliokidea: 2 puntu.

– Diplomaturaren mailako titulua edo baliokidea: puntu 1.

\* Hizkuntzak: 2 puntu gehienez.

– Euskara: 3. H.E. edo baliokidea: puntu 1.

– Ingelesa: B2: 0,5 puntu.

– Frantsesa: B1: 0,5 puntu.

\* Ikastaroak eta prestakuntzako jarduerak: Gehienez 3 puntu emango dira.

Instituzio publikoek antolatutako edo emandako ikastaroak eta prestakuntzako jarduerak baloratuko dira, betiere epaimahaiaren iritziz lanpostuarekin lotura zuzena eta esklusiboa badute.

– 20 ordura arteko iraupena: 0,5 puntu.

– 20 ordutik gorakoa: puntu 1.

*Bederatzigarrena. Epaimahaiaren proposamena.*

Egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, Epaimahaiak behin betiko kalifikazioak argitaratuko ditu.

El Tribunal Calificador no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia de la mitad de sus miembros titulares o suplentes, debiendo estar presentes, en todo caso, el Presidente y el Secretario. Todos los miembros del Tribunal Calificador tendrán voz y voto, a excepción del Secretario, que carecerá de esta última facultad. Los acuerdos se adoptarán por mayoría de votos de los presentes, resolviendo, en caso de empate, el voto de calidad de quien actúe como Presidente.

#### Octava. Fase de concurso.

El Tribunal Calificador valorará los méritos siguientes, siempre que hayan sido alegados en la instancia y debidamente acreditados, con referencia siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.

El Tribunal realizará la valoración de los méritos y publicará las calificaciones provisionales del concurso. Junto con esas calificaciones se publicará la relación de personas aspirantes que deben subsanar la documentación, con la mención expresa del mérito cuya acreditación ha de subsanarse.

A partir del día siguiente al de la citada publicación, las personas aspirantes dispondrán de un plazo de 5 días naturales para formular las reclamaciones que estimen oportunas y para realizar las subsanaciones que resulten procedentes.

Los méritos se valorarán conforme a lo siguiente:

\* Servicios prestados: 0,25 puntos por mes de servicios prestados como Agente de la Policía Municipal (sobre un máximo de 10 puntos).

Los méritos se valorarán en función del tiempo transcurrido por períodos de meses, despreciándose las fracciones inferiores al mes. A los efectos se entenderá por mes la suma de 30 días naturales.

La acreditación de los servicios se realizará mediante certificaciones de la Administración en que se hayan prestado, especificando las plazas en las que se han desempeñado las funciones, así como la duración de la relación de servicios.

Los periodos de tiempo en los que se haya prestado servicio a tiempo parcial o con jornada reducida se computarán como trabajados a jornada completa.

\* Títulos académicos oficiales: Se valorará sobre un máximo de 2 puntos.

Los títulos oficiales de Derecho, Criminología, Seguridad Ciudadana, Protección Civil y aquellos otros que el Tribunal Calificador entienda que tienen una relación con los anteriormente citados y con las funciones de la plaza de agente básica convocada se puntuarán así:

– Titulación de nivel de licenciatura, grado universitario o equivalente: 2 puntos.

– Titulación de nivel de diplomatura o equivalente: 1 punto.

\* Idiomas: Máximo 2 puntos.

– Euskera: PL3 o equivalente: 1 punto.

– Inglés: B2: 0,5 puntos.

– Francés: B1: 0,5 puntos.

\* Cursos y actividades formativas: Se valorará sobre un máximo de 3 puntos.

Se valorarán los cursos y actividades formativas, organizadas o impartidas por instituciones públicas, a juicio del Tribunal calificador, estén exclusiva y directamente relacionados con el puesto.

– Hasta 20 horas de duración: 0,5 puntos.

– A partir de 20 horas: 1 punto.

*Novena. Propuesta del tribunal.*

Terminado el plazo para formular las reclamaciones que estimen oportunas, el Tribunal hará públicas las calificaciones definitivas.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa lehiaketan lortutako puntuazioen batura izango da, eta horrek zehaztuko du behin betiko puntuazioaren hurrenkera.

Berdinketa gertatuz gero, lehentasun-hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da:

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikulua aplikatuz, emakumeei emango zaie lehentasuna, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak -sexuagatik diskriminatzaileak izan gabe- baditu, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

2. Emandako zerbitzuetan puntuazio altuena lortu duenaren alde.

3. Berdinketak jarraitzen badu, lehentasun-hurrenkera zozketaz egingo da.

*Hamargarrena. Agirien aurkezpena eta izendapena.*

Lehiaketako fasearen balorazioa amaitutakoan, behin betiko emaitzekin batera, lan-poltsa martxan jarriko da, eta beharrak betetzeko deiak lehentasun-ordenaren arabera egingo dira.

*Hamaikagarrena. Gorabeherak eta inpugnazioak.*

Epaimahaiak eskumena du oinarri hauetan aurreikusten ez den gaietan gerta daitezkeen zalantzak argitzeko eta deialdia modu egokian burutzeko beharrezko erabakiak hartzeko.

Deialdi hau, honen oinarriak eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahalko dira, Administrazio Publikoaren Prozedura Administrazio Komunaren 39/2015 Lege urriaren 1ekoan ezarritako epeetan eta forman.

La calificación final de cada aspirante estará constituida por la suma de las puntuaciones obtenidas en el concurso, lo que determinará el orden de puntuación definitivo.

En caso de empate, el orden de prelación se establecerá atendiendo, sucesivamente, a los siguientes criterios:

1. En aplicación del artículo 20.4.a) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se dará prioridad a las mujeres, salvo que concurran en la otra persona candidata motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso al empleo.

2. A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en los servicios prestados.

3. Si todavía persiste el empate, el orden de prelación se establecerá por sorteo.

*Décima. Presentación de documentos y nombramiento.*

Una vez finalizada la valoración de la fase de concurso, junto con los resultados definitivos, la bolsa de trabajo se pondrá en funcionamiento y los llamamientos para las diferentes necesidades se realizarán según el orden de prelación.

*Undécima. Incidencias e impugnaciones.*

El Tribunal queda facultado para resolver las dudas que se presenten y adoptar los acuerdos necesarios para el buen orden de la convocatoria, en todo lo no previsto en estas bases.

La presente convocatoria, sus Bases y cuantos actos administrativos se deriven de ella y de la actuación del Tribunal Calificador, podrán ser impugnados en los plazos y en la forma establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.



## I. ERANSKINA - ANEXO I

### Udaltzain lan-poltsa bat sortzeko deialdian parte hartzeko eskaera / Solicitud para tomar parte en la convocatoria para la creación de una bolsa de trabajo de agentes de la policía municipal

<b>SARREREN ERREGISTROA/REGISTRO DE ENTRADA</b>	<b>Deialdiko lanpostua / Puesto al que opta</b>	
	GAOren data / Fecha BOG	
	Zein hizkuntzatan egin nahi dituzu ariketak? / ¿En qué lengua desea realizar las pruebas? Euskeraz / En Euskera <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz / En castellano <input type="checkbox"/>	

#### 1. DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

1. deitura / 1 <sup>er</sup> apellido	2. deitura / 2 <sup>o</sup> apellido	Izena / Nombre	
NAN / DNI	Telefonoa(k) / Teléfono(s)	Posta elektronikoa / Correo electrónico	Jaioteguna / Fecha de nacimiento
Bizilekua / Domicilio		Herria / Localidad	Posta-kodea / Código postal
Probintzia / Provincia		Gidatzeko baimena / Permiso de conducir Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/> Mota / Clase _____	
Minusbaliatua bazara, zenbat denbora eta zer bitarteko berezi behar dituzu azterketak egiteko? (behar badituzu) / En caso de que sea minusválido, ¿qué tipo de adaptación de tiempo y de medios necesita para la realización de los ejercicios? (en el supuesto de que los necesite)			

#### 2. FORMAIZIOA / FORMACIÓN

Deialdian eskaturiko titulu akademiko ofiziala / Título académico oficial exigido en la convocatoria.

TITULUA / TÍTULO	ZEIN ZENTROK eta HERRITAN EMANA CENTRO y LOCALIDAD de EXPEDICION	NOIZ LORTUA FECHA OBTENCIÓN

#### 3. AUKERAKO ARIKETA / EJERCICIO OPTATIVO

Euskarako proba egin nahi al duzu? (Nahitaezkoa ez bada) / ¿Desea realizar la prueba de euskera? (Cuando no sea de carácter preceptivo)		
Bai / Sí <input type="checkbox"/>	Ez / No <input type="checkbox"/>	Ez, titulu badut eta / No, pues poseo título <input type="checkbox"/>

#### 4. ESPERIENTZIA / EXPERIENCIA

Administrazio Publikoan edota enpresa pribatuan (merezimenduak kalifikatzeko) / En la Administración Pública y/o en la empresa privada (para la valoración de los méritos).

NOIZ SARTUA FECHA INGRESO	NOIZ UTZIA FECHA CESE	ADMINISTRAZIOAREN edo ENPRESAREN izena Nombre de la ADMINISTRACIÓN o la EMPRESA	BETETAKO LANPOSTUA PUESTO de TRABAJO OCUPADO



<b>5. FORMAZIOA / FORMACIÓN</b>		
Hautagaiak idatziz adierazten dituen datuak, merezimenduak kalifikatzeko (bestelako tituluak, ikastaroak, mintegiak, diplomak...) Datos que el aspirante hace constar para la valoración de méritos (otros títulos, cursos, seminarios, diplomas...)		
TITULUA edo KURTSOA TÍTULO o CURSO	ZEIN ZENTROK eta HERRITAN EMANA CENTRO y LOCALIDAD de EXPEDICION	NOIZ LORTUA FECHA de OBTENCIÓN

**ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK / DOCUMENTOS QUE SE ACOMPAÑAN A ESTA SOLICITUD:**

- DNIaren fotokopia / Fotocopia del D.N.I.
- Gidatzeko baimenaren fotokopia / Fotocopia del carnet de conducir.
- Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskaturiko tituluaren fotokopia / Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria.
- Hizkuntzazko Eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia (edo titulu baliokidearena) / Fotocopia del certificado del Perfil Lingüístico (o del título equivalente).

Behean sinatzen duen honek **ESKATZEN DU** onartua izan dadila eskabide honetan adierazitako hautaprobetan, eta **BAIEZTATZEN DU** egiazkoak direla hemen adierazten dituen datuak eta betetzen dituela deialdiko Oinarrietan eskaturiko baldintzak eta eskakizunak. Horretarako, hitz ematen du jatorrizko agirien bidez egiaztatuko dituela eskatzen dizkiotenean.

El abajo firmante **SOLICITA** ser admitido a las pruebas selectivas a las que se refiere la presente instancia y **DECLARA** que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones y los requisitos exigidos en las Bases de la convocatoria, comprometiéndose a acreditarlos fehacientemente en el momento en el que le sean requeridos.

Data / Fecha \_\_\_\_\_

Sinadura / Firma

**LASARTE-ORIA UDALEKO ALKATE-PRESIDENTEA.  
SR. ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA.**

Lasarte-Oriako Udala baimendua geratzen da dokumentu honetan jasotako datu pertsonalei tratamendu automatizatua emateko, konpromisoa hartzen duelarik Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko arautegiak ezarritakoa betetzeko.  
Interesatuak datuak eskuratzeko, kantzelatzeko, zuzentzeko eta oposatzeko eskubideak baliatu ahaliko dituzte Lasarte-Oriako Udalaren aurrean.

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria queda autorizado al tratamiento de los datos personales contenidos en este documento, comprometiéndose al cumplimiento de lo establecido en la normativa sobre Protección de Datos de Carácter Personal.  
Los interesados podrán ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición ante el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.